

Astigarragako Udalaren adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria sexistari buruz

Astigarragako Udalak martxoko lehen hamabostaldian herrian izan diren bi indarkeria kasuak gaitzesten ditu. Halaber, bat egiten du Soraluzeko hilketa gaitzesteko gaurko deitutako dagoen gaitzespen kazeroldarekin.

Astigarragako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian martxoko lehen hamabostaldian gertatu diren emakumeen kontrako indarkeria sexista kasuen aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die mota horretako erasoak pairatzen dituzten emakumeei eta bere ingurukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak erasotutako emakumeen esku jarri ditu, baita bere onera etortzeko prozesuan behar dezaketen laguntza guztia ere.

Astigarragako Udalak 2019. urtean *Astigarragako Udalaren eraso matxisten aurrean jokatzeko eta erantzuteko protokoloa* sortu zuen. Hori dela eta, gorago aipatutako gertaera horien berri izan bezain laster, protokolo instituzionala aktibatu du informazioa baloratzeko eta, biktimei egokia den arreta eman ahal izateko beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko.

Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta erantzuteko protokoloa ezinbesteko tresna zaigu erantzun egoki, eraginkor eta bateratua emateko jendartean ikusezin eta normalizatua dugun emakumeen kontrako indarkeria sexisten eta bestelako indarkeria matxisten aurrean. Alde batetik, protokolo honek Astigarragako Udalak emakumeen kontrako indarkeria sexistarekin eta indarkeria matxista mota guztiekin amaitzeko duen konpromisoa berresten du. Bestetik, indarkeriaren prebentzioan eta arretan zuzenean lan egiten duten Udaleko sailen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzen ditu. Eta, azkenik, eta garrantzitsuena, emakumeen kontrako indarkeria sexistarekin eta zein bestelako indarkeria matxistekin amaitzeko egiten den lana hobetzen du, besteak beste, biktimei ematen zaien arreta hobetuta.

Udalaren jarrera irmoa da, argi eta garbi adierazi nahi dugu ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaini nahi diegu, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren edo indarkeria matxistaren aurka; indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, zein sexu/genero/sexualitate sistema eta horri lotutako botere harremanetatik ateratzen direnena, emakume guztiena baizik.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia, alegia. Indarkeria sexista emakume guztiek emakume izateagatik edota emakume itxura izateagatik jasaten duten indarkeria da. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza.

Astigarragako Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez du atsedetik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Langintza horren barruan, ezinbestekoa da adierazpide egokiak eskaintzea Astigarragako herritarrei, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak, zein bestelako eraso matxistak, irmotasunez gaitzetsi ditzaten. Erasoa jasan duten emakumeek edo heteroarau jarraitzen ez dutenek, guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia zital horren ahalmena, emakumeei, edo bestelako erasotuei, erantzun-tresna egokiak emanez, eta gizon erasotzaileei, berriz, ekintza makur horien ondorioak ordainaraziz.

Horrenbestez, Astigarragako Udalak dei egiten die herritar guztiei emakumeen kontrako eraso sexista edo indarkeria matxista kasuen aurrean aurka agertzera eta indarkeria horren biktimei bakarrik ez daudela adieraztera. Era berean, ezinbestekoa da Udalak behar bezalako erantzuna eman ahal izateko, gertatzen diren eraso sexista eta matxisten berri izatea. Denon artean indarkeria sexistarik eta matxistarik gabeko Astigarraga eta jendarte parekidea eratzea lortuko dugu.

Soraluzeko hilketa

Astigarragako Udalak, halaber, martxoaren 16an Soraluzen gertatutako erailketa matxista salatzen du eta bat egiten du hilketa hori salatzeko ekimenekin.

Kezka isolamendu egoera dela eta

Halaber, Astigarragako Udalak bere kezka agertzen du COVID-19ko osasun-krisiaren ondorioz berrogeialdian eta isolamenduan gerta daitezkeen ekintza eta portaera matxisten gorakadaren aurrean. Hori dela eta, gogorarazten du eskura dagoela indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeak artatzeko telefono zenbakia: 900840111 (doakoa eta 365 egunez eta 24 orduz dago erabilgarri).

Gaitzespen kazerolada

Azkenik, Astigarragako Udalak herritar guztiei dei egiten die koronabirusaren osasun-krisirako ezarritako protokoloa eta gomendioak jarraituz, etxetik bat egin dezaten mugimendu feministak antolatu eta bultzatutako gaitzespen-kazeroladekin. Gaitzespen ekimen hori izango da gaur, martxoak 17, 21:00etan.

Declaración del Ayuntamiento de Astigarraga sobre la violencia sexista contra las mujeres

El Ayuntamiento de Astigarraga condena los dos casos de violencia que se han producido en la primera quincena de marzo en Astigarraga. Asimismo, se suma al acto de condena del asesinato de Soraluze convocado para hoy.

El Ayuntamiento de Astigarraga quiere mostrar su condena más enérgica contra los casos de violencia sexista que se han producido durante la primera quincena de marzo en nuestro municipio, y mostrar su apoyo y toda su atención a las mujeres que sufren este tipo de agresiones y a su entorno. El Ayuntamiento ha puesto en manos de las mujeres afectadas toda la información y recursos de que dispone, así como toda la ayuda que puedan necesitar en su proceso de recuperación.

El Ayuntamiento de Astigarraga aprobó en 2019 el *Protocolo de actuación y respuesta ante agresiones machistas del Ayuntamiento de Astigarraga*. Ante las agresiones citadas se ha activado el protocolo institucional para valorar la información recabada y asegurar la coordinación necesaria para la atención adecuada a las víctimas.

Ante las agresiones sexistas y otras formas de violencia machista invisibles, el protocolo de actuación y respuesta ante la violencia machista es un instrumento imprescindible y eficaz para dar una respuesta adecuada y conjunta. Por un lado, el citado Protocolo reafirma el compromiso del Ayuntamiento de Astigarraga contra la violencia sexista y contra todo tipo de violencia machista. Por otro lado, mejora la coordinación y colaboración entre los departamentos municipales que trabajan directamente en la prevención y atención de la violencia. Y, por último, y lo más importante, mejora el trabajo que se hace para acabar con la violencia sexista y otras formas de violencia machista, como la atención a las víctimas.

La posición del Ayuntamiento es firme: queremos manifestar de forma rotunda que no aceptamos de ninguna de las maneras estas agresiones que vulneran los derechos de las mujeres e instamos a la ciudadanía a que muestren su repulsa ante todo tipo de violencia machista. La violencia no es un problema sólo de aquellas mujeres que la padecen, sino de todas las mujeres que padecen una situación derivada de las relaciones de poder del sistema sexo/género/sexualidad.

La violencia contra las mujeres tiene siempre un agresor y una víctima individuales, pero tiene profundas raíces en su origen, a saber: la ideología que quiere controlar y dominar a las mujeres. La violencia sexista es la violencia que sufren todas las mujeres por ser mujeres o por parecer mujeres. Por lo tanto, esta violencia no es fruto de acciones aisladas ni de hechos inexplicables.

El Ayuntamiento de Astigarraga asume la responsabilidad de garantizar que todas las personas que vivimos en el municipio dispongamos de todos los derechos. Por lo tanto, no descansará en este empeño, porque hay que buscar la solución a este grave problema social que pone en cuestión las bases de nuestra convivencia democrática. Dentro de esta labor, es imprescindible ofrecer los



medios adecuados para que la ciudadanía de Astigarraga condene con firmeza todos los ataques contra las mujeres y otras agresiones machistas. Las mujeres agredidas o las que no siguen una heteronorma deben sentir el apoyo de todas y todos y deben sentir que ese apoyo es responsabilidad de todas y todos. Asimismo, los agresores deben saber que entre todas y todos vamos a combatir la estrategia del miedo que afecta a las mujeres y a otros colectivos que sufren la violencia sexista aportando herramientas de respuesta y haciendo pagar por sus actos a los agresores.

Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga llama a la ciudadanía a manifestarse ante los casos de agresión sexista o violencia machista contra las mujeres y a manifestar que no están solas a las víctimas de la violencia. Asimismo, es imprescindible que el Ayuntamiento tenga conocimiento de las agresiones sexistas y machistas que se produzcan. Entre todos conseguiremos crear una sociedad paritaria y sin violencia sexista y machista.

El asesinato de Soraluze

El Ayuntamiento de Astigarraga también denuncia el asesinato machista ocurrido en Soraluze el 16 de marzo y se une a las iniciativas para denunciar este asesinato.

Preocupación por la situación de aislamiento

Asimismo, el Ayuntamiento de Astigarraga muestra su preocupación ante el aumento de acciones y comportamientos machistas que se pueden producir en la cuarentena y aislamiento debidos a la crisis sanitaria del COVID-19. Por ello, recuerda que está disponible el número de teléfono de atención a mujeres víctimas de violencia machista: 900840111 (gratuito, 365 días y 24 horas).

Cacerolada de condena

Por último, el Ayuntamiento de Astigarraga hace un llamamiento a la ciudadanía para que, cumpliendo las restricciones establecidas en la crisis sanitaria del coronavirus, nos unamos a la cacerolada de denuncia convocada por el movimiento feminista para hoy, 17 de marzo, a las 21:00 horas.

Ayuntamiento de Astigarraga
Declaración aprobada por la Junta de Portavoces
17-03-2020